



Bilboko
Elizbarrutia
DIÓCESIS DE BILBAO

BATAIOAREN SAKRAMENTUA

4. SAIOA **GURASOAK PARROKIAN**

Delegación de Anuncio y Catequesis
Fede- Zabalkunde eta Katekesirako Ordezkaritza



1. Helburua

Bataioa, Jainkoaren seme eta alaba bezala bizitza berrira jaiotzea adierazten duen sakramentu bezala ikusi.

2. Helburu bereziak

- Bataioaren bidez, Jesusekin bat eginda gaudela eta Elizako kide garela ikusi.
- Bataioa hartu izanaren esperientzia pertsonala eguneratu.
- Bataioak norberarentzat duen esanahiaz (Bataioaren eraginez) jabetu.



Idea nagusiak:

- Bataioak Jainkoarekiko batasuna egia bihurtzen du, agertu egiten du; haren seme eta alaba garela ospatzen dugu
- Bataioa hartu ondoren, Elizako kide egiten gara




Ezinbesteko lagungarriak

- Eranskinen kopiak.
- Bideoak. Ordenagailura jaitsita izan.

Astia hartu saioaren dinamika ulertzeko eta behar izango dugun guztia aurretik prestatzeko.

GURASOENTZAKO SAIOA PARROKIAN



Saiorako gida

Katekistarentzat ...

Saioa bost ataletan banatuko dugu:

- 1. unea: Agurra eta aurkezpena. 1. eta 2. urratsak.
 - 2. unea: Gaiaren garapena. 3. eta 4. urratsak.
- 3. unea: Jesusen bataioa. 5. urratsa.
- 4. unea: Barneratzea eta otoitza. 6-8. urratsak.
- 5. unea: Familiar bizitzeko. 9. urratsa.



1. unea: Agurra eta aurkezpena

Laguntzaileak hasierako agurra egin ondoren, aurreko saioan landutako kontuak gogora ekarriko dizkie.

Azken egunean, sakramentuen inguruan gogoeta egin genuen; gaur, 7 sakramentuetako baten jarriko dugu arreta, hain zuzen ere, Bataioan.



1. urratsa: Bataioaren inguruan solasean hasteko, ondorengo galdeketa osatuko dugu:

GALDEKETA

- Bataiatuta zaude?
- Jainkoak maite zaituela sentitzen duzu?
- Era batera edo bestera, parte hartzen duzu parrokia elkartean?
- Baduzu hartu-emanik Jainkoarekin?
- Salatzen dituzu gizarte bidegabekeriak?
- Jesusek hartu zituen duintasun beraz hartzen dituzu pertsona guztiak?
- Bataiatu bezala bizitzeak badu aparteko esanahirik zure bizitzan ala berdin dio? Zerbaiten zehazten da? Zertan?



2. urratsa: Galdeketa erantzun ondoren, elkarriketan jardungo dugu, erantzunak batera jarri eta azken galdera nabarmenduz.

- Azken galderaren ingurukoak batera jarri.



2 unea. Gaiaren garapena.

Une honetan, bataioaren sakramentuaren ikur bakoitzaren esanahia azalduko dugu:



3. urratsa: Geure bataioaz jabetuko gara. Bataioaren sakramentuaren ospakizunean erabiltzen diren ikurren bidez adierazten da Bataioaren aberastasuna. Ezinbestekoa da euren esanahia ulertzea.

Hasteko, guztion artean, Bataioan erabiltzen diren ikurrak gogoratuko digutu.

Zeintzuk dira Bataioaren sakramentuaren ospakizunean erabiltzen diren sinboloak?

- Denbora emango diegu pentsa dezaten eta, ondoren, bateratze-lana egingo dugu.

4. urratsa. Bataioaren ikurrak

Laguntzaileak prest izango ditu ospakizunean erabiltzen diren ikurrak eta azaldu egingo ditu banan-banan. Gurasoek "Gure Bataioaz jabetu" agiria eskura dezakete (1. ERANSKINA).

·1. Ura: Nire bizitzako zein alderdi hobetu beharko nuke?

Pekatutik garbi geratu eta Kristorengan bizi berrira jaiotzen garela irudikatzen da bere bitartez. Bizitza berri honetan, egunez egun hazi egin behar dugu Jesusen ikasle bezala.

Ospatzaileak bataiarrian bataioa jasoko duenaren gainera ura botatzeko erabiltzen da.

·2. Olia: Zein jarrera sendotu beharko nuke?

Espirituak kristau eta Jesusen jarraitzaile bezala bizitzeko ematen digun indar eta kemena irudikatzen ditu.

Bataioaren ospakizunean, Krismaz igurzten du abadeak bataioa hartuko duenaren burua, bere barruan Kristo daraman sagaratu bezala dagokion duintasuna agertzeko.

·3. Argia: Nire bizitzako zein egoerak du argi premia?

Gure bizitza bere Hitzaz argitzen duen Kristo berpiztuaren ikur da.

Kandelaz baliatuz, Kristo berpiztuaren ikur den pazko-zuzitik hartzen da argia. Argi hori gurasoei eskura ematen zaie eskaria eginez: Jainkoaren hitzaren gidaritza onarturik, Jesusengan fede bizia helaraz diezaiotela seme-alabari eta fede hori garatzen lagundu.

·4. Jantzi zuria: Zer eskatzen dit gaur egun bataiatu bezala bizitzeak?

Bataioaren bidez jaiotzen garen bizitza berria, gure jarrerez iraunarazi behar duguna irudikatzen du.

Bataiatu berriak, izaki berri bezala, gaitz guztitik garbi, Jesusen ikasle bezala bizi behar duela agertzen du.

Atal honi amaiera emateko, "Mójate ahora" bideoa ikusiko dugu.



ikusteko,
klik egin irudian
edo QR kodean





3. unea. Jesusen bataioa



5. urratsa. Jesusen bataioa

Jesus Jordanen bataiatu zen. Gertaera horretan, bere bizitzarako eta geure bataiorako guztiz garrantzitsuak izan ziren esperientziak bizi izan zituen, kristau Bataioa Jesusekin, Jaunarekin, bere bizitza, heriotza eta berbizkundean bat egitea baita.

- Gogora dezagun pasarte hura: **Lk 3, 21-22** (ebanjelioko pasarte irakurriko dugu)

“Herri guztia bataiatzen ari zela, Jesus ere bataiatu egin zen eta, otoitzean zegoela, zerua zabaldu eta Espiritu Santua jaitsi zitzaion gainera, usotankeran agertuz. Eta mintzo hau etorri zen zerutik: «Zu zaitut neure Semea, neure maitea, zu zaitut atsegin»”.

Laguntzaileak proposaturik, Jesusek une horietan dituen bizipen esanguratsuenetan arreta jarriko dute:

- **Zerua zabaldu zen...**
Jainko ahalguztiduna ez dago guregandik bananduta... Bera gure bila dator...
- **Jainkoaren Espirituak inguratu, bildu egin zuen**
... astiro-astiro jaitsi eta zeure gainean pausatzen den usoa bezala... ,
- **Hitz ederrak entzun zituen bere barruan: “Zu zaitut neure Semea, neure maitea, zu zaitut atsegin”.**
Beste era batera esanda: “Zu ikustean, benetan gustura sentitzen naiz, egundoko ilusioa dut zurekin...”.
- Hitzok bere barruan entzutean, Isaiasen liburuan Yahveren Morroiari buruz agertzen direnak gogora ekarri zituen: **"Hona hemen nire zerbitzaria, nik eusten diodana, nik hautatua, atsegin dudana. Beronen gain ezarri dut neure espiritua..." (Is 42, 1).**



Eta esperientzia hau bizi ondoren, basamortura joan zen gogoeta egitera eta Jainkoak beretzat zuen egitekoa antzematera.

Handik itzuli eta herrira joango da Jainkoaren Zerbitzari bezala dagokion egitekoa gauzatzeraz.

4.unea: Otoitza eta barneratzea

6. urratsa

Isilunea-begiespena. Ondoren, taldekide batek berriz irakurriko du ebanjelioko txatala. Pasartean esandakoa geure egingo dugu ondorengo argibideez baliatuz:

Pasartea geure buruan irudikatuko dugu...

- Koka gaitezen pasartean, bertan bageunde bezala, begiratzuz, entzunez, sentituz... Jordan ibaiaren ertzean...
- Gizon eta emakumeak ilara luzean, Joanez noiz bataiatuko zain...
- Jesus heldu eta barkamen eta erruki premian dauden ilaran ipintzen da... itxaron egiten du... pausuz pausu aurrera egiten...
- ... hurbildu egiten da... Joanez aurrera iritsi... Joanez bataiatu egiten du...
- Orduan, Jesusek Jaina-Jainkoarekiko hurbiltasuna, lotura estua, barru-barrukoa... sentitzen du eta maitekiro entzuten dio: "Zu zaitut neure Semea, neure maitea, zu zaitut atsegin". Hausnartu pasartea..., zer sentiarazten dizu, zer gogorarazten...?
- Sentitu Jainkoak zeure izenez deitzen zaituela: "Zu zara neure seme, neure alaba, neure maitea, zu zaitut atsegin".

7. urratsa. Une honetan bizi izandakoa batera jarriko dugu taldean. Nola egiten dugu?

- Post-it baten, bizi edo sentitutakoa jasoko duen hitza/esaldia idatziko dugu eta, ondoren, kandelaren inguruan ipini (gelaren erdian egongo da, bataioaren ikurrekin batera).



"HAU DA NIRE SEMEA, NIRE MAITEA" (MATEO 3, 16)

Amaitzeko, abestia entzungo dugu:

Inoiz ez da goizegi gure seme-alabei Jainkoaz hitz egiteko. Oraintxe bertan egin dezakegu. Ain karemen abesti batek laburbiltzen du Nazareteko Jesusen mezua.

8. urratsa: " Desde abajo...." (Ain Karem) abestia entzungo dugu

<https://www.youtube.com/watch?v=DESWUJK2xZo>

1

**Entzuteko,
klik egin irudian**



5. unea. Familia bizitzeko



9. urratsa. Eleizak darabiltzan sakramentu-ikurretan ikus dezakegu bere burua agertzeraz ematen digun Jesus:

•Ikusi seme-alabarekin bere bataio-eguneko argazkiak eta azaldu egun horrek zuentzat duen esanahia. Argazkiak une horretara zaramatzate. Egun haren ikurretako bat da. Egun horretan eman zizuten kandela gordeta baduzue, horrek ere egun hura gogorarazten dizuela azaldu.

•Azaldu, era berean, zein ikur erabili zuen abadeak bataiatzeko: ura, olio, pazko-zuzien piztutako kandela, eta zein esanahi duten:

Urak garbitasuna eta bizia irudikatzen ditu. Uraren bitartez, Kristoren bizitzara jaiotzen gara.

Olioaz igurztean, Jainkoaren seme-alaba bezala dagokigun duintasuna eta kristau bezala dugun eginkizuna agertzen da.

Pazko-zuziak -bertan pizten dugu kandela-, gure artean bizidun, gure bizitzak argituz agertzen den Kristo irudikatzen du. Kandela ematen zaigu argi izan gaitzen haurrentzat bataioan jaiotzen diren bizitza berrian.

•Oroitzapenak dakarzkion, pertsona edo une garrantzitsuren bat gogorarazten dion gauzaren bat bila dezala. Zergatik aukeratu duen eta beretzat zer esan nahi duen azal dezala.

Amaitzeko, ondorengo bideoa ikusiko dugu familian: "El Rey León- El ciclo de la vida".



**Entzuteko,
klik egin irudian**

 Hona hemen abestiaren letra:

Desde el día en que al mundo llegamos
y nos ciega el brillo del sol.

Hay más que mirar,
donde otros sólo ven,
más que alcanzar en lugar de soñar.

Son muchos más los tesoros
de los que sí podrán descubrir.

Y bajo el sol protector
con su luz y calor
aprender todos a convivir.

En un ciclo sin fin.
Que lo envuelve todo.
Y aunque estemos solos
debemos buscar.
Y así encontrar
nuestro gran legado.
En el ciclo,
el ciclo sin fin.

Es un ciclo sin fin.
Que lo envuelve todo.
Y aunque estemos solos
debemos buscar.
Y así encontrar
nuestro gran legado.
En el ciclo,
el ciclo sin fin.

I. ERANSKINA. GURE BATAIOAZ JABETU

GURE BATAIOA JABETU

Bataioaren sakramentuaren ospakizunean erabiltzen diren ikurren bidez adierazten da Bataioaren aberastasuna. Ezinbestekoa da euren esanahia ulertzea.



Ura


Pekatutik garbi geratu eta Kristorengan bizi berrira jaiotzen garela irudikatzen da bere bitartez.

*Nire bizitzako zein alderdi
hobetu beharko nuke?*

Olioia

Espirituak kristau eta Jesusen jarraitzaile bezala bizitzeko ematen digun indar eta kemena irudikatzen ditu.

*Zein jarrera sendotu
beharko nuke?*



Argia

Gure bizitza bere Hitzaz argitzen duen Kristo berpiztuaren ikur da.

*Nire bizitzako zein egoerak
du argi premia?*

Jantzi zuria

Bataioaren bidez jaiotzen garen bizitza berria, gure jarreraz iraunarazi behar duguna irudikatzen du.

*Zer eskatzen dit gaur egun
bataiatu bezala bizitzeak?*



II. Eranskina. Jesusen Bataioa

Lk 3,21-22

"Herri guztia bataiatzen ari zela, Jesus ere bataiatu egin zen eta, otoitzean zegoela, zervu zabaldu eta Espiritu Santua jaitsi zitzaion gainera, uso-tankeran agertuz. Eta mintzo hau etorri zen zerutik: «Zu zaitut neure Semea, neure maitea, zu zaitut atsegin»".